



ULMA Ikasgela,
etorkizuneko industria
bultzatzeko lankidetza
gune bat.

GUnearen Kontseilu
Akademikoa,
abian

ULMA Packagingeko
lantegi berria,
errendimendu
betean

Osasunaren
zaintza indartzeko
ekografoa

Hiri altzariak
Valdebebaso
aldageltokian

ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA




04

GUnearen Kontseilu Akademikoa, abian



05

Koop 2040 foroa, kooperatibismoaren erronka globalei aurre egiteko



06

Torres lehendakariordeak eta Industria sailburuak gure proiektu sozioenpresarialari buruzko interesa erakutsi dute




09

Negozioen proiektuak eta jarduerak

15

ERREPORTAJEAK




15

Osasunaren zaintza indartzeko ekografo berria



18

Batzar garaia



22

ULMA Ikasgela, etorkizuneko industria bultzatzeko lankidetzaren gune bat


26

ERRETIROAK, AGENDA ETA IRADOKIZUNAK



26

Iñaki Zubia Gonzalez.
Bizitza osoa
merkatuak zabaltzen



27

Erretiroak
2025eko maiatzaren 1etik
abuztuaren 31ra

BEGIRA #64 2025eko uztaila

ARGITARATZAILEA:

Grupo ULMA S. Coop.
Garagaltza auzoa 51
20560 OÑATI,
Tel: 943 25 03 00

ZUZENDARITZA:

Juan Carlos Malet
jcmalet@ulma.com

EDITORE KONTSEILUA:

Irati Goitia,
Maria Sendin,
Sara Soria,
Nerea Burgoa,
Itsaso Letamendi,
Ane Aramendi,
Raul García,
Juan Carlos Malet



GUnearen Kontseilu Akademikoa, abian

ULMAk pauso erabakigarria eman du talentuaren garapenarekin eta bere profesionalen prestakuntzarekin duen konpromisoan, GUnea Academyren Kontseilu Akademikoa sortuta.

Organoa taldearen formazio estrategia orientatu eta aberasteko asmoz sortu da. Helburua ahalik eta hobekien prestatutako pertsonak izateko beharrari erantzutea da, ULMAko Negozioak gidatzeko, eta bere lehiakortasun beharrei proiektu sozioenpresarial baten ikuspegitik aurre egiteko.

Kontseilua Taldeko pertsonak osatuko dute, zeinek ULMAren errealitatearen

eta etorkizuneko beharren ezagutza zehatza ematen duten, baita kanpoko kideek ere, zeinek hezkuntzaren, kudeaketaren eta enpresaren esparruan esperientzia sakona duten. Horien artean daude Ana Andueza, erakundearen eraldaketan eta exekutiboaren formazioan aditua, eta Juan Moscoso, ekonomista eta unibertsitateko irakaslea, politika publikoen eta berrikuntzaren azterketan ibilbide luzea duena.


GUnea Academy tresna estrategiko bat da, formazio beharrak ULMA Talde Kooperatiboaren etorkizuneko helburuekin lerrokatzeko: kultura kooperatiboa indartzea, kide sentimendua sortzea, etorkizuneko liderrak identifikatu eta prestatzea, etengabeko ikaskuntza bultzatzea, jarduera hobetzeko, eta berregokitzapen profesionala sustatzea, ingurunearen aldaketei aurre egiteko.

Kontseilu Akademikoak formazio ereduaren kalitatea, koherentzia eta bilakaera zainduko ditu, eta Taldearen kooperatiba eta negozioetan abian dauden ekimenak aberastuko dituen kanpoko begirada emango du.

AA pertsonen kudeaketan

AAren inpaktua ulertzeko eta estrategikoki baliatzeko, Pertsonen Kudeaketaren arloko taldeek formazio saio batean parte hartu zuten, Departamentu Zentraletako auditorioan.

Mamen Blanco adimen artifizialeko coach, dibulgatzaile eta egileak emandako saioan, teoria eta praktika uztartu ziren, eta parte hartzaileek aztertu zuten AAko tresnek prozesuak automatizatzen, edukia sortzen eta datuak modu arinagoan eta estrategikoagoan aztertzen nola lagun dezaketen.





Koop 2040 foroa, kooperatibismoaren erronka globalei aurre egiteko

Ibon Calvok eta Oier Araiztegik, ULMA Taldeko lehendakaria eta lehendakariordea, hurrenez hurren, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak antolatutako hiru saioetan parte hartu dute, non kooperatibetako 50 ordezkari bakoitzak bere parte hartu duten.

Koop2040 eztabaida foroa kooperatibismoaren eta euskal enpresa kooperatiboaren erronka globalak jorratzen dituen ekimen bat da. Gogoeta eta eztabaida guneak euskal kooperatibei lagundu nahi die aurre egin beharreko aldaketa globalei aurrea hartzen, eta, aldi berean, gizartean duten papera indartzen.

Orain arte, Koop2040 hiru saiotan egin da, eta migrazioaren eta biztanleriaren zahartzearen erronkak, talentu eskasia eta balio sozial berriak eta etorkizuneko beste erronka batzuk aztertu dituzte, hala nola digitalizazioa eta AA, jasangarritasuna eta energia, eta etxebizitza.

Foroak bukaerako saio batekin itxiko du bere jarduerak, urrian, eta hor aterako dira prozesuaren ondorio nagusiak, erronkak eta praktikan jarri beharreko ekintza garrantzitsuak identifikatzeko.

“Koop40 Foroan dugun partaidetzak ULMAk euskal kooperatibismoaren etorkizunarekin duen konpromiso

irraiz erantzuten dio. Gogoetak partekatzen, ikuspegiak batzeko eta aurrean ditugun erronka handiei anitz kolektiboarekin aurre egiteko unea da: eraldaketa soziala, talentua erakartzea, ereduaren jasangarritasuna, eta ereduak belaunaldi berriekin duen lotura. Bide horretan, elkarbizitza eta lankidetzak inoiz baino beharrezkoagoak izango dira”

Ibon Calvo
ULMA Taldeko lehendakaria



Konfekoopen Plan Estrategiko berria

ULMA KONFEKOOP Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren Ohiko Batzar Nagusia izan da, eta hor datozen lau urteetan jorratu beharreko erronkak aurkeztu dira.

Topaketaren esparruan, Rosa Lavin presidentek 2021-2024 aldiko balantze positiboa nabarmendu zuen, erakundea indartu delako, eta eragin eta ordezkartza handiagoa lortu duelako, euskal kooperatiben ingurunearen eragile estrategiko gisa.

Horrez gain, Batzarrek etapa berri baten hasiera markatu du, 2025-2028 Plan Estrategikoaren aurkezpenarekin, bere bokazioa izanik euskal kooperatibismoaren rola indartzea eta garapen ekonomiko eta sozialari ekarpena egitea.

“Handiagoak, indartsuagoak, eraginkoragoak” lelopean, Konfederaziora elkartutako enpresa kooperatiboetako 200 ordezkari bildu dira batzarrean, horien artean, ULMA Taldea.

Torres lehendakariordeak eta Industria sailburuak gure proiektu sozioenpresarialari buruzko interesa erakutsi dute

Mikel Torres Eusko Jaurlaritzako bigarren lehendakariordeak eta Mikel Jauregi Industria sailburuak, ULMA Taldea eta bere negozioetako Oñatiko hainbat instalazio bisitatu zituzten, martxoan eta apirilean, hurrenez hurren.

Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin egindako bilera horiei esker, gai estrategiko interesgarriak jorratu ziren, hala nola ULMAren proiektu sozioenpresarialaren bilakaera, dibertsifikazio estrategiak, eta industria sektorearen erronka eta aukera nagusiak.


Lan bilera Mikel Torresen taldearekin

Joan den martxoaren 19an, Iñaki Gabilondo ULMA Taldeko zuzendari nagusiak, Ibon Calvo presidentek eta zuzendaritza taldeko beste kide batzuek lan bilera izan zuten Mikel Torres bigarren lehendakariorde eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuarekin, bere saileko arduradunak alboan zituela.

Bileraren ondoren, ULMA Medical Technologies bisitatzeko aukera izan zuten, zeina osasunaren esparruari soluzio adimentsuak aplikatzen dizkion ULMAren ekimena den. Ondoren, ULMA Handling Systemseko instalazioetan ibili ziren, eta han bertatik bertara ezagutu zituzten ingeniartza intralogistikoko proiektu aurreratuak diseinatzeko eta ezartzeko prozesuak.

Bileraren ondoren, Mikel Torresek ULMA Taldearen lidergoa eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko berrikuntzaren alde egindako apustua nabarmendu nahi izan zituen.





Bilera Industria sailburuarekin

Apirilaren 9an, Mikel Jauregi Industria sailburuak eta Jon Ansoleaga SPRI Taldeko zuzendari nagusiak lan bilera batean parte hartu zuten, eta ULMA Forged Solutionsen Zubillagako plantara bisita egin zuten ondoren.

Topaketan, ULMA Taldeak dibertsifikazio estrategia aurkeztu zuen, soluzio teknologiko aurreratuen garapena, jasagarritasunaren aldeko konpromisoa eta bere eredu kooperatiboa indartzea jasotzen dituena.

Zuzendaritza taldeko kideekin egindako bileran, testuinguru gero eta konplexuagoan agertzen ari diren etorkizuneko erronka nagusiak aztertu ziren. Jardunaldia amaitzeko, ULMA Forged Solutionsen Oñatiko lantegi nagusian ibili ziren, eta, han, 2025erako aurreikusita dagoen inbertsio produktiboen plana aurkeztu zuen CEOak, Meritxell Sanchez Blazquezek. Ekimenen artean nabarmentzen dira sektore berrietarako soluzio berritzaileak garatzera bideratutako I+G proiektu berriak, eskakizun tekniko handiko prozesu eta produktuetan adimen artifiziala eta digitalizazio aurreratua txertatuz.

ULMAk bere esperientzia eskaintzen dio Mondragon Unibertsitateko MTalent Masterraren erronkari

"Haria jarraituz" izeneko erronka akademikoaren helburua gogoeta egitea da, erakundea uzten duten pertsonen ezagutza eta esperientzia bertan jarraitzen dutenei nola helarazi aztertzeke.

Maiatzean, abiatzeko saioa egin zen ULMA Taldearen instalazioetan, eta masterreko 17 ikasleek erronka garatzeko ikuspegi osagarriak eta oso baliagarriak ezagutu zituzten, ULMA Handling Systems, ULMA Embedded Solutions eta ULMA Liftingeko profil desberdinetako pertsonen ahotik.



TECNUNeko ikasleek ULMAk proposatutako erronkei aurre egin diete

Urtero, hainbat ekintza egiten ditugu formazioaren eta ingurune industrialaren arteko lotura sendotzeko. Horietako bat erronkak dira, ikasleek beren ezagutzak ingurune industrial erreal batean aplikatu ahal izateko aukera eskaini nahi dutenak.

Hori da ULMA Packagingek aurten hasi duen erronkaren kasua, Making and Hacking ikasgaiaren barruan, ontziratze teknologiarik lotutako erronka erreal batekin, baita, duela 5 urtetik, ULMA Constructioneko teknika eta aplikazio arloak TECNUNeko Ingeniaritza Industrialeko Masterreko ikasleei proposatzen dien erronka ere.

Aurten aplikazio eraginkorragoa, seguruagoa eta optimoagoa proposatu zitzaizen, bizitegi eraikuntza proiektu bat gauzatzeko beharrezkoak diren materialen kantitateari eta aurrekontuari dagokienez.

Lanek asmamen maila handia eta kalitate akademikoa erakutsi dute.




ULMAk Santander Bankuaren eta Mugikortasun eta Logistika Klusterraren bilerak hartu ditu

Mugikortasun eta Logistika Klusterraren Batzar Nagusia ULMA Taldearen egoitzan egin da berriki, eta Santander Bankuaren Enpresa Handien departamentuak ere bilera bat egin du bertan. Logistika eta mugikortasun sektorean diharduten enpresetako 100 arduradun inguru bildu dira ekitaldi horretara, eta 2025-2028 Plan Estrategikoa onartu eta sektorearen jardura markatuko duten hiru alderdi gako identifikatu ziren: trantsizio energetikoa eta berdea, trantsizio digitala eta sektorearen lehiakortasuna.

Aurreko ekitaldiko emaitzak eta urte honetarako aurreikuspenak aurkezteaz gain, Batzarra Eduardo Lasa presidente berrautatzea onartu zuen, ULMA Handling Systemsen ordezkari gisa.

Santander Bankuko Enpresa Handien departamentuko arduradunek, berriz, ULMAko egoitzan egin dute bileretako bat, ULMA Taldeak bultzatutako proiektu sozioenpresarialaren errealitatea gertutik ezagutzeko.



10.000 m²
75 pertsona
Kontsumoaren %10 asetzen
duten eguzki plakak



ULMA Packagingeko lantegi berria, errendimendu betean

Udaberri hasieran, ULMA Packagingek 10.000 m²-ko planta berri bat jarri zuen martxan, 12,5 milioi euroren inbertsioarekin. Bertan 75 lagunek lan egiten dute, eta ontziratzeke soluzioak automatizatzeke lanean dihardute eskusiboki.

Oñatiko Torreauso auzoan kokatua, lantegi operatibo berria automatizazioaren aldeko apustua indartzen duen pauso garrantzitsua da, eta merkatuaren egungo beharrei hobeto erantzuteko aukera ematen die, lerro automatizatueta eta giltza eskurako proiektuetan gero eta zentratuago.

Inauguratu zenetik hilabete batzuk igaro ondoren, lantegia errendimendu betean da gaur egun. Bere azaleraren zati handi bat egunez egun gauzatzen ari diren proiektu eta instalazio berriekin beteta dago dagoeneko. Giroa dinamikoa da, pertsonen mugimendu handiarekin, bisitekin, martxan jartzen diren ideia eta soluzioekin.

Lantegi berriaren jardura etengabea, gainera, ULMA Packagingek etengabeko hobekuntzarekin eta hazkunde jasangarriarekin duen konpromisoaren isla da. Kualifikazio handiko talde bat du, bezero bakoitzaren behar espezifikoetara egokitutako soluzio eraginkorrak garatzen lan egiten duena.

Gainera, plantak energia kontsumoa eta ingurumen inpaktua murrizteko baliabideak ditu, hala nola eguzki plakak (100 kW-eko potentzia instalatua), kontsumoaren %10 inguru asetzen dutenak, eta zkargagailu elektrikoak.

Zabalkunde horrek, lanerako gaitasuna hobetzeaz gain, hazten, berritzen eta balioa barrutik ematen jarraitzeke konpromiso kolektiboa ere adierazten du.

“Lantegia irekitzeak ULMA Packagingek urtetan sustatzen ari den proiektu estrategiari erantzutea, teknologia guztiak bateratzea eta espazio fisiko berean ekipo gisa sendotzea dakar. Plantak ikuspegi orokorra eta proiektuen kudeaketa hobea ematen digu, baita prozesuak optimizatzea eta sinergiak baliatzea ere.”

Eva Sacristán
 ULMA
 Packaging



ULMA CONSTRUCTION

Ingeniaritza kolaboratiboa, Zêzere ibai gaineko zubirako

Portugalgo Castelo de Bode urtegiaren ingurune naturalean, Zêzere ibaiaren ibilgutik 100 metrora, Pombeirako zubia altxatzen da. ULMA Constructionek parte hartze nabarmena izan du zubiaren egitura konpontzeko eta indartzeko VSL enpresak gidatutako esku hartzean.

Azpiegitura horrek 385 metro luze ditu eta funtsezko zeregina betetzen du eskualdearen konektagarritasunean. Zubian egin diren lanen artean daude zubia indartzea, aurretentsioko kable berriak tenkatuz, eta euskarriak ordezte eta konpontzea.

ULMAk eskainitako BRIO norabide anitzeko aldamio soluzioa lan jarraituko plataforma bat da, zirkulazioa eten gabe esku hartzeko gune guztietarako sarbide segurua ematen duena, eta ULMAko ingeniaritza, logistika eta muntaketa arloen eta VSLko taldearen arteko lankidetzaren prozesu etengabe baten emaitza izan da.

Guztira, 280 tona BRIO norabide anitzeko aldamio instalatu ziren, ezarritako epeak beteta eta fase bakoitzean segurtasun estandar altuak bermatuta.



Krakoviako Musika Zentro berria, Polonian

Krakoviako Musika Zentro berriaren eraikuntzak ULMA Constructionen enkofratu, zinbria eta aldamio soluzioak izan ditu, proiektua gauzatzen zen bitartean eraginkortasuna eta segurtasuna hobetzen lagundu dutenak.

Eraikinak, bi udal orkestraren egoitza, eta Krakovia Hiriko Garapen Agentziak bultzatuta, 1.000 lagun hartzeko edukiera izango du, eta 120

musikarirentzako eta 80 laguneko abesbatza baterako agertokia. Eraikinaren egiturak hiru solairu ditu, eta 13 metroko altuera duen zutabe ilara batek inguratzen du. Kontzertu aretoa 7 metro sestraren azpian dago, eta, ondorioz, maila freatikoa jaitsi behar izan dute. Eraikinari zurruntasuna emateko, eskailera eta igogailu nukleoak sartu dira, eta lau ekitaldi areto.



262 Fifth Avenue: Manhattan eraldatzen duten abangoardiako enkofratuak

NoMadeko bihotzean, Manhattanen, 262 metrotik gorako altuera duen silueta berri bat azaleratu da New Yorkeko skylinean: Bosgarren Etorbideko 262ko etxe orratza. Dorreak, 54 solairurekin eta 41 apartamenturekin, mugarri arkitektoniko bat markatzen du.

Bezeroak ULMAren teknologia aukeratu zuen, eta enkofratze sistema bertikalak, horizontalak eta igokariak hautatu zituen egiturari bizia emateko. Haizearen eta altueraren aurkako babes perimetralerako, irtenbide teknikoa HWS sistemaren eskutik etorri zen. Pantaila multzoak instalatuz, sistema horrek eraikinaren perimetrea estaltzen du, eta denborak eta prozesuak optimizatzen ditu.



Italiako filialak 10 urte bete ditu

ULMA Architectural Solutionsek eta bere zuzendaritza taldeak filialaren hamargarren urteurrenaren ospakizunetan parte hartu dute. Horrenbestez, lan eta konpromiso handiko hamarkada bat ospatu da, lorpen garrantzitsuak ekarri baititu Alpeez bestaldeko herrialdeko zenbait proiektu nabarmenetan.

Reggio Emilia eskualdean dago, Italia iparraldean, eta filialak sei laguneko talde bat du gaur egun, langile komertzialek eta bulegoetako langileek osatua. Filiala irekitzea apustu estrategikoa izan zen tokiko hornitzaileekin harremanak sendotzeko

eta drainatze lerroaren irismena handitzeko, Italiako merkatuan presentzia indartzeko.

Lehen urtean, filialak milioi bat euroren fakturazioa lortu zuen. Zenbateko hori hirukoiztu egin da 2024an.

Hasieratik, ULMA Architectural Solutionseko taldeak lankidetzat estua izan du ingeniariarekin, arkitektoekin eta sektoreko profesionalekin, drainatzeko soluzio eraginkorrak eta proiektu bakoitzaren beharretara egokituak garatzeko. Aipagarrienen artean daude Tarentoko eta Napoliko portuetan egindako esku hartzeak,

Bariko kale nagusietarako drainatze sistemen hornidura, eta Salernoko plaza enblematikoenaren eta Reggio Emiliako plaza nagusiaren eraikuntzan parte hartu izana, azken hiri horretan dagoelarik filiala.



Groseko anbulatorioa birgaitzea

ULMA Architectural Solutionsek Gros auzoko Osasun Zentroko fatxada zaharberritu du Donostian, eta, horrenbestez, prestazio energetikoak hobetu eta eraikinaren jatorrizko irudia berrinterpretatu dira.

Jatorrian Eduardo Garayk diseinatu zuen Groseko anbulatorioa, 1960an, eta birgaitzeko lana erronka bikoitza izan da: eraikinaren eraginkortasun energetikoa hobetzea eta irudi berritua ematea. Hori lortzeko, ULMA Architectural Solutionsen STONEO plakaz osatutako fatxada aireztatuko sistema aukeratu da, isolamendu eraginkorra ematen duen sistema, energia kontsumoa murrizteko eta eraikin barruko erosotasun termiko eta akustikoa hobetzeko.



Hiri altzariak Valdebebasco aldageltoki berrian (Madril)

Valdebebasco bihotzean, Madril, garraiobidez aldatzeko geltoki berri bat inauguratu berri dute, eta ULMA Architectural Solutionsen hiri altzarien hiru modelo izango ditu. Azpiegitura berriak hazten ari den gune horretan bizi diren 35.000 pertsona baino gehiagori emango die zerbitzua, mugikortasuna eta garraio publikoaren erabilera hobetzeko. Valdebebasco aldageltokiko hiri altzariak aukeratzean, barrualdearen eta kanpoaldearen arteko trantsizioa funtsezko alderdia izan da, espazioak mugatu ez ezik, bidaia aurreko atsedenaldira ere gonbidatzen duten altzariekin.

ULMA HANDLING SYSTEMS

ULMA Bilboko eta Paraguaiako aireportuetara doa

ULMA Handling Systemsek baggage handlingeko bi proiektu garrantzitsu ditu Bilboko aireportuan eta Asunciongo Silvio Pettirossi nazioarteko aireportuan, eta aukera emango diote aireportu sektorearen barruan hedatzen jarraitzeko.

Bilboko aireportuan, ULMA Handling Systemsek ekipajerako lau karrusel ordezkatzeko ditu helduerako

terminalean eta bere elikadura lineetan. Sei hilabeteen baino ez, sistema berria martxan jartzea espero da, eta Espainiako aireportu estrategikoenetako batean duen presentzia indartuko du, nazioarteko bisitariek Bilbora iristean deskubrituko duten lehen irudietakoa bihurtuta.

Halaber, ULMAk pauso historikoa eman du Latinoamerikan, Paraguaiako

Asunciongo Silvio Pettirossi nazioarteko aireportuan bere lehen baggage handling proiektuaren esleipenarekin. Aireportuko iritsiera guneko sistema birmoldatzeko proiektuak herrialde horretan duen presentziaren hasiera da, eta ULMA Handling Systemsek eskualdean duen ibilbidea indartzen du, dagoeneko hainbat proiektu arrakastatsu baititu bertan.



Onnera Talderako bi proiektu Oñatin eta Bartzelonan

ULMA Handling Systemsek automatizazio logistikoko bi proiektu berri garatzeko ditu, Onnera Taldearen Oñatiko eta Bartzelonako plantetarako neurria diseinatuak.

Onnera Oñatin –lehenago, Fagor Industrial–, ULMA Handling Systemsen soluzioen bidez, tolesteko makinetarako txapa moztuen hornidura sistema hobetu nahi dute. Horretarako, soluzio bat diseinatu da, hainbat tamaina

eta pisutako palet bolumen handiak mugitzeko aukera emango duena, denborak eta espazioa optimizatzeko. Sistema biltegi automatizatu batean oinarritzen da, zeinak materialaren sarrerak eta irteerak modu eraginkorrean kudeatuko dituen.

Onnera Bartzelonan, berriz, osagaien harrera eta ekoizpen lerroetarako banaketa hobetzea da helburua. Soluzioak ia 1.000 paletako edukiera

duen biltegi automatizatu bat izango du, laguntzako gune konbentzional batekin osatuta. Horrek guztiak erabilgarri dagoen espazioa hobeto kudeatzen eta ekoizpenaren hornidura arintzen lagunduko du.

Bi proiektuak neurria diseinatu dira, bezeroak planteatutako behar zehatzei erantzunez: espazio falta, eta materialen kudeaketan eraginkortasun handiagoa lortzeko beharra.

ULMA LIFTING SOLUTIONS

Filial berria Estatu Batuetan

ULMA Lifting Solutionsek pauso estrategiko bat eman du nazioartean hedatzeko, Pennsylvanian filial bat irekiz, Inoxtuck AEBko merkatuan hazteko giltzarri izango dena.

Jokin Etxarri Area Managerra da buru, eta urriaz geroztik ari da Inoxtuck gamaren ezarpena gidatzen: ULMAk elikadura edo farmazia sektoreetarako sortutako altzairu herdoilgaitzeko soluzio higienizagarriak.

Amerikako lurretan dagoeneko 42 makinako lote bat jarrita, abiapuntua Pack Expo Chicago azoka izan zen. Filiala martxan jarri ondoren, arreta hurbilagoa eskaintzea, entrega epeak murriztea eta saldu osteko zerbitzua indartzea du helburu. Horri AEBn eta Kanadan banatzaileak erakartzeko egiten ari diren lana gehitu behar zaio, giltzarri izango baitira merkataritza sare sendo bat finkatzeko.



ULMA AGRÍCOLA

12 negutegi Guadalajaran, perretxikoak hazteko

Labore horren eskakizun espezifikoetara egokitzeko, berotegiek hainbat estaldura dituzte: bat barrualdean, txapa lakatuz egina, eta bi arroka zuntz isolatzailez eginak, eta, kanpoaldean, olanazko geruza bat. Gainera, aireztapen sistema bat instalatu da, esporak barreiatzen laguntzeko eta perretxikoen garapena eta hazkundera bultzatzeko.

Horrek guztiak behar den opakutasuna eta hezetasuna ematen ditu, perretxikoen hazkuntza sostengatuko duen mikroklima optimo bat sortzeko, laborea kanpoaldean lantzeak dituen arriskuak saihesteko eta hazkuntza aldia urteko hamabi hilabeteetara zabaltzeko.



ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

ULMA, Beckhoff Automazioneko hornitzaile ofiziala

Beckhoff Automation mundu mailako liderra da PC bidezko kontrol teknologian oinarritutako automatizazio sistema irekietan, eta ULMA Embedded Solutionsen esperientzian eta konpromisoan jarri du konfiantza, bere teknologia baliozkotze eta test ingurune automatizatuetan integratzeko.

Lankidetzara horren parte gisa, ULMA Embedded Solutionseko Ingeniaritza taldeak arrakastaz osatu du Beckhoff teknologiaren ziurtapen prozesua, horri esker, test eta baliozkotze prozesuen automatizazioaren esparruan duen zerbitzuaren eskaintza handitu ahal izateko –Kalitate Automatizatua ere esaten zaio–. Ziurtagiriak, taldearen gaitasun teknikoak indartzeaz gain, ULMA automatizazio aurreratuko proiektuetan funtsezko bazkide gisa ere posizionatzen du.



Azokak eta Konbentzioak

Azoketan eta konbentzioetan parte hartzea aukera bat da gure negozioetarako, beren soluzioak aurkezteko, loturak estutzeko eta aukera berriak irekitzeko. Hauek dira azken hilabeteetan izan diren nazioarteko azoka eta konbentzioetako batzuk.

ULMA CONVEYOR COMPONENTS

CIM CONNECTED (Montreal, Kanada)

ULMA Conveyor Componentsek meatzaritza sektoreko topaketa garrantzitsuenetako batean parte hartu du Kanadan, heavy-duty meatzaritzaren esparruan duen posizioa indartzeko.

ULMA LIFTING SOLUTIONS

Convención AECE (Bilbo)

Orga Jasotzaileen Enpresen Elkartearen V. Konbentzioak (AECE) 300 profesional eta 100 enpresa baino gehiago bildu zituen, sektoreko topagune nagusi gisa sendotuta.

ULMA CONVEYOR COMPONENTS Y ULMA CONSTRUCTION

EXPOMIN (Txileko Santiago, Txile)

Txileko Santiagon egiten den EXPOMIN erakusketa Latinoamerikan garrantzirik handiena duen meatzaritza azoka da, eta han meatzaritza sektorearen behar espezifikoak erantzuten dieten azken berrikuntzak erakutsi dira. Bertan izan dira ULMA Conveyor Components eta ULMA Construction.





**ULMA LIFTING SOLUTIONS Y
ULMA PACKAGING**

IFFA 2025 (Frankfurt, Alemania)

Frankfurteko IFFA azoka haragi eta proteina alternatiboen industriarako erreferentziazko topaketetako bat mundu mailan, eta ULMA Lifting Solutionsek eta ULMA Packagingek parte hartu dute bertan



ULMA PACKAGING

IBA 2025 (Düsseldorf, Alemania)

Okintza eta gozogintzako mundu mailako erreferentziazko azokaren aurtengo edizioan, ULMA Packagingek bere presentzia indartu du, eta prozesu osoa hartzen duten soluzioak aurkeztu ditu, ontziratzetik paletizazioraino.



ULMA CONSTRUCTION

FESCOMAD (Madrid, Espainia)

Eraikuntzako Fundazio Laboralak antolatu du eraikuntza sektoreko Madrilgo azokaren hirugarren edizioa, eta ULMA Constructionek eraikuntza proiektuetan segurtasuna hobetzeko soluzioak aurkeztu zituen.


ULMA CONSTRUCTION

BAUMA (Munich, Alemania)

10 urte baino gehiagoren ondoren, ULMA Construction bezeroekin eta laguntzaileekin elkartu zen berriro, eraikuntzarako eta meatzaritzarako makineriari eskainitako nazioarteko ekitaldi nagusi gisa sendotu den azoka honetan.

ULMAk teleoftalmologian duen esperientzia aurkeztu du

ULMA Taldeak lan ingurunean osasuna sustatzeko pauso berritzailea eman du, teleoftalmologia txertatu baitu bere azterketa medikoetan.



Esperientzia duela gutxi aurkeztu zuen Taldeko mediku Jon Alberdik, Pontevedran, Lan Medikuntzako Lusitania-Galiziako II. Jardunaldian, ***“Begi-osasuna lan ingurunean: begirada berri bat oftalmologiatik”*** izenburupean.

Ekimena 2020an eta 2021ean begi osasunari buruz egindako kanpaina baten emaitza onen ondoren sortu da, non 281 langile ebaluatu baitziren. Esperientzia horren ondorioz, Prebentzio Zerbitzuak ikusmenaren azterketa modu sistematikoan txertatzea erabaki zuen, aldizkako azterketa medikoen zati gisa.

Teleoftalmologia zerbitzua tresna eraginkor gisa sendotu da begietako arazoak goiz detektatzeko, ikusmenari lotutako lan arriskuak prebenitzeko, eta lan ingurune seguru eta osasungarriagoak lortzen laguntzeko.

Prozesua U-RETINAL DFC gailuaren bidez gauzatzen da: ULMA Medical Technologiesek (UMT) diseinatutako begi kamera ez-midriatiko bat da, erretinaren irudiak hartzeko aukera ematen duena, begi ninia dilatatu beharrik gabe. Hartutako irudiak UMTk berak sortutako plataforma batera bidaltzen dira, oftalmologiako espezialistak dagokion balorazioa egin eta pazientearen txostena osatu dezan.

Osasunaren zaintza indartzeko ekografo berria

ULMAk pertsonen osasunarekin duen konpromisoak beste pauso bat eman du, Osasun Zerbitzuan ekografo bat gehituta. Tresna berriak talde medikoaren gaitasun diagnostikoa hobetzeko giltzarria dela erakutsi du, lesioak azkarrago eta zehatzago detektatzeko aukera ematen baitu, eta, horrela, artatutako pertsonak sendatzeko prozesuak arintzen ditu.



ULMAko Osasun Zerbitzuak arreta integrala eskaintzen die taldeko langile guztiei, lan ingurune segurua, osasungarria eta konfiantzazkoa sustatzeko.

Bere moldagarritasunari esker, ekografoa funtsezko laguntza bihurtu da erabaki medikoak hartzeko, ez bakarrik balizko lesioak identifikatzeko,

baita horien bilakaeraren jarraipen hurbila egiteko ere. Lan ingurunean bertan zuzenean erabiltzeak diagnostiko goiztiarrak errazten ditu, eta horrek askotan tratamendu eraginkorrak eta errekupeazio azkarrak ekartzen ditu.

Erabilgarritasunaren adibide garbia aurten osasuna sustatzera bideratutako

BIZI Proiektuaren barruan egiten ari den lana da. Esparru horretan, tiroideen ekografiak egiten ari dira, eta, horiei esker, itxurazko sintomarik ez zuten pertsonengan asaldurak antzeman dira, eta, ondorioz, Endokrinologia zerbitzura garaiz bideratu ahal izan dira.

**2024an
424 ekografia
egin ditugu**



**6 urologiakoak
10 tiroidekoak
22 sabelaldekoak
386 muskulueskeletikoak**



Jon Alberdi

ULMAko Osasun Zerbitzuko medikua

Nola lagundu du erabilerak zerbitzu medikoan?

Denbora tarte labur honetan, zenbait lesio maneiatu ahal izan ditugu modu eraginkorrarekin. Adibidez, lesioak premiazko kirurgia behar izan dezakeen kasuetan, ekografiak tratamenduaren denbora murriztea eta prozesuak arintzea ahalbidetu digu, eta, horrela, errekupeazioaren kalitatea hobetzea.

Zer gaitz mota identifikatu ahal izan dira?

Gorputzean agertzen diren "konkorretan" ekografia erabiltzeak aukera ematen digu lesioak onbera

edo susmagarri diren baztertzeko edo berresteko. Beste batzuetan, minutu batzuetako miaketaren ondoren, "tendinitisa" zirudiena tendoiaren haustura partziala edo osoa zela ebaztea ahalbidetu digu.

Sabeleko minen kasuan, mina erregistratu ahal izan dugu, eta behazuneko besikulako harriek edo sabeleko aortako patologiaek eragindakoa izan daitekeela baztertzeko aukera eman digu. Ohatilan bertan azkar emandako begirada bati esker, erabakiak hartu eta jarraitu beharreko hurrengo urratsak ezarri ditzakegu.

Batzar garaia

Batzar nagusiak kooperatiben erabaki organo nagusia dira, non lorpenak baloratsen diren eta egin beharreko urratsak zehazten diren. Erantzukizun eta balio partekatuen adibide dira.

Beste urte batez, Grupo ULMA S.Coop.eko eta ULMA Inversiones S.Coop.eko batzarrek beren bazkide guztiek ULMAren misio, ikuspegi eta balioekin duten konpromisoa erakutsi dute. Baina, horrez gain, batzarrak topaketarako gunea dira, izandako lorpenak aitortzeko eta balioesteko.

Aurten, ohitura denez, 40 hitzaldi informatibo baino gehiago antolatu ziren aldez aurretik, Oñatin eta Otxandion egindako 11 Batzar Nagusiei bide emateko, eta 2.000 bazkidek baino gehiagok parte hartu zuten.

Elkargunea

Batzarren alderdi formaletatik harago, Negozio askok beste jarduera osagarri batzuk antolatu dituzte, proiektua osatzen duten pertsonen arteko hurbiltasuna sustatzeko.

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

Batzarraren aurretik, Osinurdineko lantegiaren zabalkuntza inauguratu zen ofizialki, kooperatibako lehendakariak aurkeztu eta Oñatiko Ganbara abesbatzak girotutako ekitaldi batean, eta bertan ez zen falta izan etxeko lankide batek dantzatutako aurrekua eta plantillako zenbait kidek osatutako eta interpretatutako bertso emanaldia.

Programaren parte gisa, Zuhaitz Gurrutxaga Realeko futbolari ohiak nahasmendu obsesibokompulsiboa (NOK) nola gainditu duen azaltzeko testigantza ausarta partekatu zuen bertaratutakoekin, ikasbidez betetako hitzaldi hunkigarri batean.



ULMA CONSTRUCTION

Batzar Nagusiaren ondoren, ULMA Constructionek giro biziko topaketa bat antolatu zuen Gandiaga Topagunean (Arantzazu), ordezkarietako pertsonen arteko harremanak sendotzeko eta talde espiritua sustatzeko pentsatutako jarduerekin.

Bingo musikala izan zen une izarretako bat. Parte hartzaileek, enpresaren produktuen izenekin ausaz elkartuta, barrea eta konplizitatea partekatu zituzten. Photocall bat, zozketak, sariak eta Mitxel Santamarina animatzailearen umore ona ere izan ziren. Koktel-catering batek osatu zuen jardunaldia.



ULMA PACKAGING

Une hunkigarri batek markatu zuen eguna Batzarrean zeuden pertsona guztientzat, azken 15 urteetan CEO izandako Cecilio Lejarretari egindako omenaldiak; aurki hartuko du erretiroa, eta aurtengoa izan da ULMA Packagingeko buru dela azken batzarra. Errekonozimendua aitortu zitzaion lidergo hurbilagatik eta enpresaren hedapenean izandako funtsezko paperagatik, filial berriak

irekitzea, nazioarteko hazkundea eta ekoizpen gaitasunak handitzea bultzatuz. Ekitaldian ohorezko aurrekua izan zen eta txapel sinbolikoa jantzi zioten, oso giro berezi eta emozioz betetakoan.




“ULMA Packagingeko pertsona guztiekin oso eskertuta nago. Niretzat hain zirraragarriak izan diren Batzarreko une hauek neurekin eramango ditut. Gogoratzen ditudanean, zerbait ona egin dugula pentsatuko dut. Ezin dut gehiago eskatu nire bizitza profesionala amaitzekol.”

Cecilio Lejarreta



Iritziak eta esperientziak 2025eko Batzarretan



JAVIER MARTIN
ULMA Conveyor Components

Batzar Nagusia aukera bikaina da urtean lortutako guztia ezagutzeko eta zain daukaguna bistaratzeko joateko. Gainera, pertsonalki, elkartzea eta dugun giro ona ikustea gustatzen zait.



CRISTIANO LAMAS
ULMA Forged Solutions

Aurten, nabarmendu nahi nituzke Batzarra egiteko espazioa aldatu izana, eta eskainitako eduki informatiboa, gure kooperatibari, gainerako negozioei eta, oro har, ULMA Taldeari buruz egunean jartzeko balio izan baitigu.



VANESSA BLÁZQUEZ
ULMA Architectural Solutions

Oso positibo baloratzen dut Negozioaren egunerokoaz hain informatuta egotea. Inoiz ez nuen kooperatiba batean lan egin, eta emaitzen eta hartzen diren erabakien parte sentiaraztea erakundearekiko gure konpromisoa indartzeko modu bat da. Gure kasuan, Batzar Nagusiak, ULMA Architectural Solutionsen argazkia ez ezik, Taldeko gainerakoena ere ezagutzeko balio dit.



LEIRE CUEVA
ULMA Lifting Solutions

Egia esan, urduri samar nengoen nire lehen Batzarrerako. Hala ere, esperientzia aberasgarria eta beharrezkoa iruditu zitzaidan, denon artean eraikitzen ari garena ikusarazteko eta nora iritsi nahi dugun argi izateko. ULMA guztion proiektua delako eta bakoitzaren lana ezinbestekoa delako, bidean aurrera egiteko eta gure helburu guztiak lortzeko.



PAULA URTEAGA
ULMA Packaging

Pozgarria izan da lehen aldiz ULMA Packagingeko Batzarrean parte hartu ahal izatea. Egun berezia iruditu zait, ospakizun eguna, jendea inplikatur dagoela eta proiektuan sinesten duela nabaritzen baita. Eta gerentearen despedida... Sinestezina! Oso hunkigarria eta zintzoa. Barrutik bizitzea asko gustatu zait, eta nahi nuke askoz gehiagoren lehena izatea.

Etorkizuneko industria bultzatzeko lankidetzak gune bat

Inauguratu eta urtebetera, Mondragon Goi Eskola Politeknikoko (MGEP) ULMA Ikasgela funtsezko gune bihurtu da ULMAren ikerketarako eta ezagutzaren transferentziarako, eta lehiakortasun globala hobetzeko.

Mondragon Goi Eskola Politeknikoko (MGEP) korridore eta ikasgelen artean, ate bat nabarmentzen da bereziki. ULMAren logo handi batek identifikatzen du ULMA Ikasgelarako erreserbatutako espazioa, mundu akademiko eta profesionaleko lankidetzak ingurune bat, non ikerketa, garapena eta berrikuntza diren protagonista.

Begiratu batean, beste ikasgela gela bat gehiago eman lezake, baina barruan I+Gko puntako proiektuei eskainitako ekosistema bat du. Bere jardura duela gutxi sortutako bi katedraren ingurukoa da: bata, Adimen Artifizialaren garapenera bideratua, eta bestea, fabrikazio industrialeko prozesuen eraginkortasuna hobetzera.

Sorrera iazko uztailan MGEPekin sinatutako lankidetzak akordioaren emaitza izan da, epe luzeko lankidetzak zientifiko eta teknologikoa sendotzeko, proiektu berritzaileak bultzatzeko, gradu eta masterreko ikasleentzako talentua erakartzeko eta ULMAko profesionalen formazioan laguntzeko.

Elkarrentzako onura

ULMA Ikasgela ULMAren eta MGEPen arteko lankidetzak indartzea bilatzen duen akordio zabalago baten parte da. Sinatutako akordioak ULMA bazkide laguntzaile izatea ere jasotzen du, eta, ULMA Ikasgelarekin eta dagoeneko abian dauden lankidetzak mekanismoekin batera, helburua dira talentuaren kaptazioa indartzea, ULMArako ezagutza eta transferentzien garapena, eta ikasleentzako, irakasleentzako eta profesionalen arteko harremana sustatzea.

ULMAk beti izan du lankidetzak sendoa fakultatearekin, ingurune industrial jasangarria bultzatzeko erronkarekin bat egin dezaketen profesionalak prestatzeko. Harreman horren ondorioz, azken hamarkadan MGEPeko 400 ikasle bakoitzak gehiagok garapen profesionalerako espazio bat aurkitu dute ULMA Taldeko kooperatibetan. Gainera, azken lau urteetan, ULMA Taldearen negozioek 400.000 eurotik gorako inbertsioak egin dituzte urtean, ikerketa, transferentzia teknologikoa eta etengabeko prestakuntza proiektuak finantzatzeko.



Egun bat ULMA Ikasgelan

Egunean zehar, ikasgelako jarduera etengabea da. Ikasleak, ikertzaileak eta profesionalak sartu eta irten, elkarriketak bata bestearen atzetik, eta arbelak eta ordenagailuak formula eta eskemaz betetzen dira. Gune dinamikoa da, non akademiak eta industriak bat egiten duten, ideia eta aurrerapen teknologiko berriei forma emateko.

Ikasgelako lana bi katedraren inguruan antolatzen da: bat fabrikazio industrialeko prozesuetan zentratzen da, ULMA Forged Solutionsentzat, eta bestea Adimen Artifizialaren esparruan, ULMA Handling Systemsentzat. Guztira, katedretan ikasleak, doktoregaiak eta irakasle adituak elkartzen dira.



ms
Mondragón
Unibertsitatea
Goi Eskola Informatikoa
Escuela Politécnica Superior



AA, biltegiak automatizatzeko eta kudeatzeko

ULMA Handling Systemsen katedrari dagokionez, Adimen Artifizialera bideratuta, ikasturte bakoitzean proiektu berriak definitzen dira, eta proiektu horietan informatika eta AA graduako eta Datuen Analisia, Zibersegurtasuna eta Hodeiko Konputazioa masterreko ikasleek eta arloko ikertzaile espezializatuek parte hartzen dute. Gainera, katedra horretan Adimen Artifizialaren esparruan doktore tesia garatzen ari den pertsona batek ere parte hartzen du urtero.

Aurten, adibidez, taldea AAKo hiru proiektu berritzaile garatzen ari da. Lehenengoak aukera ematen du SQL datu baseak hizkuntza naturalaren bidez kontsultatzeko eta emaitzak bistaratzeko. Bigarrenak sistema logistikoetan anomaliak antzematen ditu, trazetatik abiatuta, kausa nagusien analisia errazteko. Hirugarrenak analisi prediktibo aurreratua aplikatzen du, desbiderapenak aurreikusteko eta sistema intralogistikoaren erresilientzia hobetzeko.

Aitor Agirre ULMA Handling Systemsen AAKo aplikazioak esploratzen diharduten bost espezialistak osatutako taldeko kide da. Diziplina anitzeko talde horrek adimen artifizialean eta datuen analisian adituak diren bi doktore, bi ikasle eta doktoregai bat biltzen ditu, eta horren tesia unibertsitate eta enpresa arteko lankidetzara horren barruan garatuko da.

Aitor Agirrek azaldu duen bezala, adimen artifiziala ikerketa eremu bat da, intralogistika modernorako funtsezkoa, giza gaitasunak nabarmen gainditzen dituzten datu bolumen masiboen prozesamendua eta analisia ahalbidetzen baititu.



“Teknologia horrek prozesu konplexuetan ezkutuan diren patroiak agerian uzten ditu, bezeroen beharrak aurreratzen ditu eta enpresa erabaki estrategikoak hartzeko euskarri kritiko bat ematen du”.

Aitor Agirre
Aitor Agirre - MUko
irakasle eta ikertzailea

Etorkizuna unibertsitatearen eta enpresaren arteko lankidetzatik eraikitzen

Mondragon Unibertsitatearen (MU) eta ULMA Forged Solutionsen arteko lankidetzak urrutitik dator. I+G proiektu batek aeronautikarako Inconel 718 superaleazioa forjatzeko prozesuak garatu zituen, eta ondoren etorriko zenaren hazia erein zuen; Meritxell Sanchez egungo CEOaren babesa funtsezkoa izan da proiektuan jarraitzeko.

Gaur, lankidetzak horrek pauso erabakigarria eman du, ULMA Ikasgela eta ardatz nagusi gisa Adimen Artifiziala (AA) erabiltzea duen katedra sortuta, Inconel 625 bezalako superaleazioen forja prozesuen sendotasuna eta fidagarritasuna handitzeko. Helburua bikoitza da: prozesuaren parametro kritikoak optimizatzea, eta egon daitezkeen desbideraketak sentzore aurreratuen eta algoritmia espezifikoaren bidez detektatzea.

“Lankidetzak mota horiek giltzarri dira industriak, gure ingurunetik,

eragin globala izaten jarrai dezan”, azpimarratu du Landerrek.

ULMA Ikasgelaren esparruan, formazioaren ikuspegi integral batekin lan egiten dute. Gradu eta masterreko ikasleak simulazio eta forja teknologia proiektuetan sartzen dira, eta informatika eta automatizazio profilek AAn oinarritutako tresnak garatzen dituzte. Aldi berean, ULMA Ikasgelak forjako doktoreak eta adituak enpresan zuzenean prestatzeko aukera ematen du. Guztira, gaur egun, lau ikertzailek eta bi ikaslek osatzen dute taldea.

“Ekosistema bizia da. Hemen eginez ikasten da, ikasleen, ikertzaileen eta lantegiko profesionalen artean ezagutza partekatuz”, azaldu du Julen Agirre doktore eta katedra horretako taldeko kideak.



“Proiektu tekniko bat baino askoz gehiago izan zen hura. Adiskidetasun eta harreman profesional oso berezi baten hasiera izan zen. Harremanak taldeen arteko benetako adiskidetasunerantz eboluzionatu du, elkarrekiko konfiantzan eta ondo egindako lanean oinarrituta”.

Lander Galdos
MUKO irakasle
eta ikertzailea



Iñaki Zubia González.

Bizitza osoa merkatuak zabaltzen



ULMA Packagingen 37. urteurrena ospatzear dela, Iñakik pertsona askorekin eta oso ezberdinekin helburu komun bat partekatu izana balioetsi du. Une zailak jasaten jakinez eta enpresak eta lanpostuak sortzen lagundu izanaren poztasunarekin, horrela ULMAren nazioarteko irudia eta Oñatiko barne egitura bera indartu delako.

Termoformazioko salmenten buru lanetan hasi zen. Zerbitzu teknikoko buru gisa emandako urte eta erdiko parentesi txiki bat izan da merkataritza arlotik aldendu duen etapa bakarra. Parentesi horren ondoren, Espainiako ipar zonako salmentetako buru hasi zen, eta 1995ean esportazioari laguntzeko bidaia batean nazioarteko merkatuari lotu zirtaion behin betiko. Termoformazioko zuzendaria izan da, gero termozigilaketako zuzendaria eta, azkenik, marketin eta esportazio zuzendaria, gaur egun arte beste hiru pertsonarekin partekatutako ardura lanetan.

2006tik aurrera, Packaging bere salmenta sarea garatzen hasi zen, filialen bidez, eta Iñakik horietako askoren sorreran parte hartu du. "Oso urte biziak izan dira, galerekin hasi ginen, produktu errekonozitu bat izan gabe, eta nazioarteko salmenta sarerik gabe. Ondoren, urtetan, ULMA Packagingek etengabe garatu ditu produktuak, soluzioak, merkatuak, barne egitura eta salmenta sarea eta nazioarteko zerbitzua", adierazi du. Aldaketa teknologikoak etengabeak izan dira, eta negozioaren bilakaera izugarria izan da. "Bezeroak ezagutzeko bidaiaztetik filial eta banatzaileekin nazioarteko sare bat zuzentzera igaro gara, lehen mailako nazioarteko bezeroei erantzunez", esan du Zubiak. Iñakik taldean lan egitearen, pertsonengan konfiantza izatearen eta arrakasta lortzeko pasioarekin lan egitearen garrantzia nabarmendu du. "Egunero berritu behar da eta merkatu aldakorrera egokitu, non lehia handia, indartsua eta izugarri oldarkorra den".

Iñakik pertsona moldagarria dela aitortu du, eta erretiroak ekarriko dion aldaketagatik ez dagoela kezkatuta. "Bidaiaztzen jarraituko dut, baina beste modu batera, kirola egingo dut, irakurri... eta garai berri honetaz gozatzen ikasiko dut", amaitu du.

Erretiroak

2025eko maiatzaren 1etik abuztuaren 31ra

***Eskerrik asko eta
gozatu! Zorionak***

SANTIAGO FERNANDEZ RIVAS
ULMA PACKAGING



IÑAKI ZUBIA GONZÁLEZ
ULMA PACKAGING



CECILIO LEJARRETA MUÑOZ
ULMA PACKAGING



FLOREN GARCIA HERNANDEZ
ULMA PACKAGING



JUANTXO SAAVEDRA
ULMA PACKAGING



JON GARRO
GARCIA DE ITURROSPE
ULMA PACKAGING



KEPA URRESTARAZU BIAIN
ULMA PACKAGING




LUIS BLAZQUEZ DIAZ
ULMA PACKAGING




JUANJO JAUREGUI
BALANZATEGUI
ULMA PACKAGING



ANDER AZKARGORTA
AZKARATE
ULMA PACKAGING



SEGUNDO
URIBEETXEBARRIA BOLINAGA
ULMA HANDLING SYSTEMS



IÑAKI
IRIGOYEN ARIZABALETA
ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS



JOSEBA ARRANZ
APAOLAZA
ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS



CARLOS
ANDUAGA BEITIA
ULMA CONSTRUCTION



ROBERTO
ANDUAGA BEITIA
ULMA CONSTRUCTION



CRUZ ANGEL
ARRIETA UNZALU
ULMA CONVEYOR COMPONENTS

Euskararen alde mugitzen gara

Inoizko parte hartzerik handiena lortu dugu ULMAn: 1.155 lagunek eman dute izena Euskaraldian, eta 31 Arigune antolatu dira euskararen erabilera areagotzeko.

Gainera, Euskaraldiak iraun duen 11 egunetan, hizkuntza ohituretan eragiteko lau pilula zabaldu dira, eta Euskaraldiari buruzko ezagutza neurtzeko lehiaketa bat antolatu da.

Nerea Kerejeta Elorzak irabazi du Zumeltzegi Dorrea jatetxean bi lagunentzako bazkaria, eta Vidal Jon Careaga Arrietak hainbat produktuz osatutako saskia.



2025eko Enpresa Lasterketa

Donostiako Enpresa Lasterketa kirola, laguntasuna eta talde lana eskutik hartuta daramatzan hitzordu gisa sendotu da. Aurten ere, ULMAko pertsonen parte hartzea nabarmena izan da, taldea definitzen duten balioen isla.

Edizio honetan, 60 pertsonak baino gehiagok jantzi dituzte zapatilak, 15 taldetan banatuta, esfortzua, hobetzeko nahia eta giro ona partekatzeko. ULMAren ezaugarri diren, baita lan ingurutik kanpo ere, konpromiso, lankidetzeta eta talde espirituaren erakusgarri argia.

ULMA, jasangarritasunerantz pedalei eragiten

Berriro egin dugu! Parte hartzaile guztien inplikazio eta konpromisoari esker, ULMAk bigarren postua lortu du **2025eko Ciclogreen 30 Egun Bizikletan Erronkan**, mugikortasun ohitura jasangarriagoak sustatzen dituen ekimenean.

Guztira, 114 pertsonak egin dute bat erronkarekin, 11.689 kilometro bizikletan eginez, eta 1.997 kg CO₂ isurtzea saihestu dute. Lorpen kolektibo bat, planeta zaindu behar delarik, ULMAn norabide berean pedalei eragiten dakigula erakusten duena.

11.698 km bizikletan
-1.997 kg CO₂ isuri gabe eguratsera

